



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA
2016/09/07

Beste erakusketa bat Batzar Nagusietan: Nagore Amenabarroren eta Fernando Villenaren "Bolizko Atea"

Bizkaiko Batzar Nagusiek 2016. urte honetako laugarren erakusketea zabalduko dabe, UPV-EHUko Arte Ederretako Fakultadeagaz aurrera daroen lankidetzarako hitzarmenaren barruan. "Bolizko atea" erakusketeak, Leioako campuseko Pintura Sailaren harrobi emonkorretik sortutako Nagore Amenabarro eta Fernando Villena artista gazteen lana biltzen dau.

Bizkaiko Batzarrek aurrera jarraitzen dabe uriaren erdialdean leku librea eskintzeko apostuagaz, Euskadin prestatutako artisten lana Bizkaiko gizarteari helduarazoteko. Oraingo honetan, Nagore Amenabarro amezketarrak eta Fernando Villena bilbotarrak, "euren moduengaitik eta modu eta materialarengaitik pinturatzat antzemoten doguzan dimentsino biko "artefaktuak" egiten ditue", Txus Meléndez irakasleak, erakusketaren komisarioak, erakusketaren katalogoan esaten dauen moduan.

Villenak hainbat lekutara egin dituan bidaietako argazkiakaz eta bideoakaz esperimentetan dau, eta gero, oroimenetik, margolariaren jakituriatik eta horren guztiaren sintesitik, "bere koadroetan oso antolakuntza eregia eta anitza eskintzen dau: kolore lauz osatutako gainazalak, mozketak eta keinuak, pintzelaren zantzuak eta, batzuetan, gertuko tonu biren ñabarduren jolasa, erlauntz baten burrunba urrunagaz parekatuta", Meléndezek deskribidu dauenez.

Amenabarro, barriz, motibo naturaletan oinarritzen da, (loratan gehienetan), eta tonu nagusien –urdinak, zuriak eta grisak– aukeraketea moduko hainbat ekintzaren bitartez, motiboa lanbro antzeko giroan edo "ordena desbardina iragarten dauen" mikroskopiotik ikusitako laborategiko laginean murgilduz lausotzen dau, erakusketaren komisarioak adierazo dauenez.

Erakusketea irailaren 26ra arte egongo da zabalik Uriaren erdialdean dagon Bizkaiko Batzar Nagusietako erakusketa aretoan (Hurtado de Amezaga kalea, 6 – beheko solairua. Bilbo), goizeko 08:00etatik 20:00etara, astelehenetik barikura, eta zapatuetan 14:00etara. Sarrerea librea izango da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

07/09/2016

Nueva exposición en Juntas Generales: "La puerta de marfil", de Nagore Amenabarro y Fernando Villena

Las Juntas Generales de Bizkaia abren la cuarta exposición de este año 2016 dentro del acuerdo de colaboración que mantienen con la facultad de Bellas Artes de la UPV-EHU. La muestra "La puerta de marfil" reúne el trabajo conjunto de dos jóvenes artistas, Nagore Amenabarro y Fernando Villena, salidos de la fructífera cantera del departamento de Pintura del campus de Leioa.

El Parlamento de Bizkaia sigue apostando por ofrecer un céntrico y libre espacio para hacer llegar a la sociedad vizcaína el trabajo de artistas formados en Euskadi. En esta ocasión, la amezketarra Nagore Amenabarro y el bilbaíno Fernando Villena nos ofrecen en esta exposición "artefectos" bidimensionales, "que reconoceremos por sus maneras y sus materiales como pintura", tal y como afirma el profesor Txus Meléndez, comisario de la exposición, en el catálogo de la muestra.

Villena experimenta con fotos y vídeos de sus viajes a diferentes lugares, y concreta después desde la memoria, el saber de pintor y la síntesis de todo ello, una organización "muy construida y muy diversa en sus cuadros: planos de color, cortes, gestos, golpes de brocha y en ocasiones, búsqueda de vibración entre tonos cercanos superpuestos y aplicados en comas", describe Meléndez.

Por el contrario, Amenabarro parte de motivos naturales (generalmente flores) y mediante una serie de acciones como la elección de unos tonos dominantes -azules, blancos y grises-, repeticiones y emborronamientos, va diluyendo el motivo en una especie de neblina o de muestra de laboratorio vista al microscopio, "que anuncia un orden diferente", sostiene el comisario de la muestra.

La exposición permanecerá abierta hasta el 26 de septiembre en la céntrica Sala de Exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia (C/Hurtado de Amezaga, 6 – planta baja. Bilbao), en horario de 08:00 a 20:00 horas, de lunes a viernes, y los sábados hasta las 14:00 horas. La entrada es libre.